



Arartekoaren 3/2010 gomendio orokorra, abenduaren 21ekoa Emakume eta gizonen arteko berdintasuna jaietan.

1. Sarrera

10 urte baino gehiago igaro dira, behin eta berriz eta ia etengabe, emakumeek tokiko jai ekintzetan duten parte hartzeari buruzko kezak jasotzen ari ginenetik, haiek denak Euskadiko zenbait herritan oso errotuta dauden tradizioen adierazpenei buruzkoak. Salaketarik nabarmenenak emakumeek Irun eta Hondarribiko alardeetako parte hartzean behar duten berdintasunari buruzkoak izan dira, baina ez bakarrak. Erakunde honen aurrean beste kexa batzuk ere aurkeztu dira, tokiko beste jai ekintza edo tradizio batzuetan ere, era batera edo bestera, emakumeak ekintza guztietatik, batzuetatik edo haien antolakuntzatik at uzten zituztelako. Hala gertatzen da Ugaoko indaba janean, Donostiako danborradan, Laudioko Erroke Deunaren Kofradiaren afarian. Kasu batzuetan, tokiko herri-aginteek behar bezala bideratu dute arazoa, beste batzuetan gure esku-hartzeak lagundu du berdintasun oinarriari lotutako irtenbidea bideratzen, eta beste batzuetan, tamalez, emakumeen eskusioak bertan dirau, orokorrean, erakunde pribatuen babespean. Izan ere, halako erakundeek, eginkizun para-publikoak betez, konstituzioak agindutako berdintasunari muzin egin nahi diote, tradizioaren osotasunaren itxurazko babesean.

Orain arte, kexa horiek direla-eta, gure aburuz kasu horietako bakoitzak dakarren zuzenbide eta gizarte irismenari dagokionez, zenbaitetan gure iritzia gomendio, adierazpen eta ebazpenen bidez eman badugu ere, uste dugu guztien azpian ezkututzen den arazo komunari era bateratuan heltzeko garaia dela, Euskadiko jai guztiak emakume eta gizonen arteko berdintasunezko gizartearen isla izatea lortu behar delakoan, hura izanda demokrazia batean gizarte eredu posible bakarra.

2. Tradizioa eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna: Emakumeak ikusezin historian. Jaia taldeko nortasunaren eta gizarte antolamenduaren adierazpena.

Emakumeek jai jardueretan berdintasunez parte hartzeari uko egiten diotenean, orokorrean, tradizioa errespetatzea darabilte argudio gizonaen nagusitasunaren "status quo"ari eusteko, emakume eta gizonen eginkizun estereotipatuak emanez, izan jai adierazpenean bertan, izan antolakuntza irizpideetan. Horrela, aldaezin gordetzearen aldekoen buruetan tradizioa ukiezina eta zurruna da, eta ezin zaio aldaketarik txikiena ere egin, bere biziraupena bera kolokan jarriko litzatekeelako. Gainera, orokorrean argudiatzen dute jai errituak historikoki gertatutakoaren isla leialak baino ez direla, eta horrek zilegitasuna kendu nahi dio errealitate ustez objektibo hori aldatzeko ahalegin orori.





Jaiak herrian gizarte ondorio garrantzitsuak izan zituzten gertaera historikoak ospatzeko jarduerak izan ohi dira. Orokorrean, egia da ospatzen diren gertaerak gertatu ziren une historikoan emakumeek zeukaten eginkizuna oso desberdina zela egungo gizartean daukatenaren aldean. Hala ere, egia da, bestalde, historiari buruz iritsitako kontakizunak, ideologia patriarkal nagusian sortuak, etengabe isilarazi ditu emakumeek gizakien bilakaerari egindako ekarpenak, eta horrek dakar jai adierazpenak ere, neurri handi batean, emakumeek historian izan duten tokia ezkutatzea.

Gure ustez garrantzitsua da, testuinguru horretan, denboran iraun nahi duen tradizio (latinez *tradere*: eman, eskuz esku helarazi) ororen benetako zentzua gogoratzea, hots, iraganeko sentipena garai berrira eramateko gaitasuna, hartzaile berriak, era berean, bizi sentipen eta zentzu horren emaileak bihurtu ahal izateko moduan. Eta gaitasun hori, hain zuzen ere, erritua gizarte egoera aldakorrari, gizarte bizitasunari egokituz ziurtatzen da. Tradizioa ez da denboran aldaezin iraun behar duen fosila, horrek, hain zuzen ere, zentzua desagertu arte galaraziko liokeelako.

Gainera, ez dago zalantzarik jaiak uneko talde sentipenaren adierazpen argia direla eta izan direla garai guztietan, garaiz garaiko gizarte antolamendu eta egituraren beraren ezaugarriak islatuz maiz. Zentzu horretan, zama sinboliko handia duten gertaerak dira, eta eurek ere jokabide eredu berriak elikatzen dituzte. Hortaz, ez da onargarria jaiak herri-aginteez onartutako adierazpen sexistaren azken lubakia izatea.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, adierazi behar dugu, alde batetik, oso garrantzitsua dela herri erakundeek baliatzea jai gertakizunek ematen duten aukera emakumeak historian ikusgai bihurtzeko; horrela, saihestuko lukete, euren pasibotasunez, emakumeek gure herri eta lurraldeetako gizarte, ekonomia eta kultura garapenari egindako ekarpenak isilarazten laguntzea, horrek desberdintasunezko kultura ereduak sendotzen baititu.

Beste alde batetik, gogorarazi behar dugu tradizioak –jai ospakizuna eragin zuten gertaera historikoak zein ere diren-, demokraziaren euskarri, eraikitzen ari garen berdintasunezko errealitateari egokitzeko premia gorria. Herri-aginteen betebeharra, adierazitako testuinguruan, tradizioak ideia bizi eta iraganetik ekarpena egiten dioten gizarte errealitate berriari adaptagarri gisa ulertzen eta adierazten irmo laguntzea da. Estereotipo sexistak errepikatzen dituzten errituek, emakumeak maiz gizonetzoei baino ematen ez zaizkien eginkizun nagusietatik at utziz, ez dute ziurtatzen gorde nahi omen dituzten eta zaharkitzeak eta garaietara ez egokitzeak etorkizunean desagerraraz ditzakeen tradizioen iraupena, eta hori ez ezik, erritu horiek, garaiz kanpoko sexismoaren erabateko adierazpenak diren aldetik, ez dira onargarriak elkarbizitzaren oinarri emakumeen eta gizonen arteko berdintasun oinarria aldarrikatzen duen gizartean.





3. Pertsonen eskubideak eta gehiengoak. Gizarte sentsibilizazioa benetako eta egiazko berdintasuna lortzeko funtsezko eginkizun publikoa

Emakumeek jai jardueretan parte hartzeko gatazka deitutakoaren aurrean, orokorrean, aurkako jarrera biren aurrean irtenbide zuzena zein den erabakitzeko gizartearen gehiengoaren iritzia galdetzea komeni dela proposatu da. Kasu batzuetan, jai jarduerak antolatzen dituzten mota guztietako elkarte edo erakundeen kideen bozketetan islatu da hori; beste batzuetan, biltzeko gai ziren pertsona kopuruaren babespean euren nahiaren bidez kotasuna aldarrikatu nahi zuten jendaurreko adierazpenen bidez, tokiko hedabideen hedapen zabalaren laguntzaz.

Jokatzeko modu horren perbertsioaz ohartarazi nahi dugu. Erakunde honentzat, askotan adierazi dugunez, argi dago emakumeek jai jardueretako parte hartzetik at uzteak, Konstituzioko 14. artikuluan emandako berdintasun oinarria urratzen duela eta, ondorioz, ezin dela gehiengoaren bidez epaitu jokabide horren ontasuna. Edozein sistema demokratikotan, oinarrizko eskubideak gehiengoaren jokotik kanpo geratzen dira. Oinarri hori *“eskubideak ez dira bozkatzen”* arauan barne hartzen da eta emakumeek jaietan berdintasunez parte hartzearen aurkako erabakiari zilegitasuna emateko ahalegin oro galarazten du, hura gehiengo handitan oinarritu arren.

Hori dela-eta, gure zuzenbide sisteman ez dago onartzerik herri bote batek, zuzenean edo zeharka, emakumeek jai jarduera batzuetatik kanpo uzteari buruzko erabakia herritar talde gutxi gorabehera gehiengodunek hartu behar dutelako ideia elikatzea eta, halaber, ez dago beste eskubideak, hala nola bizirako, osotasun fisikorako, pertsonen duintasunerako, adierazpen askatasunerako edo erlijio askatasunerako eskubideak, gaia argi dezaketen adibide batzuk emateko, onartzeari buruzko erabakiak gehiengoaren ebazpenen pean jartzerik.

Herri-aginteeek pertsonen eskubideen aurkako gizarte gehiengoaren arazoari zilegitasunez heltzeko duten modu bakarra eskubide horiei buruzko gizarte sentsibilizazioa irmotasunez sustatzea da, herritarrak, horrela, haien edukia eta erabilera errespetatu beharrez kontzientziatuz.

Duela gutxi testuinguru honetan aipatu beharreko ekimen publiko bat egon da. Izan ere, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, emakumeek eta gizonek haietan parte hartzen duten baldintzak ikertuz, Gipuzkoako udaletako jaiak genero ikuspegitik aztertzeo eskatu zuen azterlanaren¹ ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak kanpaina bat

¹ Azterlanak *“Gipuzkoako Lurralde Historikoko jaien azterketa genero ikuspegitik”* du izena eta funtsezko hiru alderdi ikertu ditu: - emakumeek eta gizonek jaien antolakuntzan duten eginkizuna; - emakumeek eta gizonek jai jarduerak ospatzeko duten parte hartzea; - emakumeen segurtasunik ezko sentipena, desinhibizio, nahasmen eta gehiegizko alkohol kontsumoko testuinguruetakoko indarkeriazko jarreraren ondorioz.



sustatu du. Foru Aldundiak berak adierazi digunez, azterlan horretatik ondorioztatzen da, gaur egun, eta aurrerapenak egin badira ere, Gipuzkoan oraindik daudela desberdintasun handiak jaietan gizonak eta emakumeen duten parte hartzean. Foru erakundeak ekimena Gipuzkoako lurraldean politika, ekonomia eta gizarte arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko egiazko eta benetako berdintasuna lortzeko bidean sartu du, beren beregi. Hori dela-eta, foru aldundiak, besteak beste, gizarte sentsibilizazioko kanpaina sustatzea erabaki zuen. Horretarako, *“Berdintasunak Gipuzkoa hazarazten du. Emakume eta gizonentzako berdintasunezko jaien alde”* lelopean, liburuxkak zabaldu zituen. Bertan, kontsigna batzuk jaso ziren eta haien helburua jaietan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren egin beharrari buruzko gizarte kontzientzia zabaltzea zen.

Egia da jaso dugun kexaren batek adierazi duela, Irun eta Hondarribian, hain zuzen ere, foru ekimenak ez duela hedapen egokirik izan, udal biek ez dutelako aldundiak igorritako liburuxkak banatzen lagundu. Foru aldundiari horren berri eman diogu, etorkizunean udal horietan ere kanpaina benetan hedatzeko modua azter dadin. Izan ere, kanpainaren helburuak batez ere haiek ukitzen ditu eta gauzatzen laguntzeari gehien uko egiten diotenak dira.

Hala ere, gure ustez ekimenak eredu ezarri du hemen landutako arazoa daukaten beste euskal herri erakunde batzuek antzeko ekimenei ekin diezaieten.

4. Antolakuntza pribatua jai eremuaren azpian dagoen erantzukizun publikoa estaltzeko

Erakunde honen aurrean emakumeek jai jardueretan daukaten parte hartzeari buruz egin diren kexa guztietan beste gai bat agertu da: gertakari horien antolakuntzaren titulartasun publiko edo pribatuari buruzko eztabaida. Oro har, tokiko jaien antolakuntzan, gehiago edo gutxiago, udaleko auzoko norbanako taldeek laguntzen dute, baina finantzazioaren eta zenbait baliabide materialak (eta giza baliabideak) jartzearen ardura, kasu gehienetan, azken batean, udalarena izan arren.

Baina, antolatzen diren jai jardueretan emakumeek eta gizonak berdintasunez parte hartzeko kontua batez ere herri-aginteei dagokiela kontuan izanda, leku askotan jai gertakari horien antolakuntza pribatua aldarrikatu da, eta kasu batzuetan lehenagoko antolakuntzaren status quoa aldatu da jai antolakuntza osoa talde pribatuetara eskualdatzeko. Horren adibiderik onena Irun eta Hondarribiko alardeak dira. Jaien titulartasuna eskualdatzeko mugimenduaren xede bakarra gertakari hori berdintasun oinarriaren aginpidetik ateratzea izan da, horrela jaiak emakumeen berdintasunezko parte hartzerik gabe jarraitu ahal izateko eta herri-aginteei konstituzioak eta legeak egiazko eta benetako berdintasuna sustatzeko emandako aginduari itzuri egiteko.





Gure esku-hartzearen pean jarri diren kasuen azterketatik ondorioztatzen dugu haietan guztietan, jai gertakariak eratzeari dagokienez, parte hartze publiko motaren bat dagoela. Hortaz, hura zeharkakoa edo urruna bada ere (jai gertakaria antolatzen dituzten taldeen finantzazioa, funts publikoak zuzenean edo zeharka erakunde horri emanez; baliabide materialak, hala nola aretoak, eraikinak, esparru publikoak, kalea barne, haien eskura jartzea; herri-jabaria erabiltzea, zein diren ere horretarako erabilitako bideak, manifestazioa, jendaurreko ikuskizunen baimen administratiboa, etab.), beti aurkitu dugu azpiko erantzukizun publikoa, ezkutatu nahi izan bada ere. Kasu batzuetan, gure esku-hartzeak, hasiera batean, berdintasun oinarria betetzen ez zuten jai gertakarietan zuzeneko edo zeharkako finantzazio edo protagonismo publiko oro amaitzeko balio izan du. Hala ere, jaietan desberdintasunak dirauen lekuetan, beti antzematen diogu, gutxienez, erakundeen epelkeria edo anbiguotasunari. Hura barik ezinezkoa litzateke emakumeak baztertzeko dituzten jaiak antolatzea. Edonola ere, udalen eskuduntza zuzena da pertsona guztien oinarritzko eskubideak erabat betetzea eta herri bakoitzeko jaiak gauzatzen diren ekintza eta gertakari guztietan emakumeak eta gizonak berdintasunez ordezkaturik egotea bermatzen dituen jai politika eratzea.

Bukatzeko, konbentziturik gaude gizarte demokratiko batean historia eta gizarte esanahi garrantzitsua duten jaiak ezin direla esku pribatuetan utzi; aitzitik, funtsean herritar guztien ondarea izan behar dute, are gehiago herriko auzoko guztiek beretzat jo eta dagokien udal edo herriaren nortasun ezaugarritzat baloratzen duten jaiak direnean. Holako kasuetan, titulartasun publikoak baino ezin du bermatu kultura ondare komun hori gordetzea, haren antolakuntzaren kudeaketa erakunde edo talde partikularretara pasarazi arren. Hori dela-eta, gure ustez komeni da tresna arautzaile bat abiarazteko aukerari buruz hausnartzen hastea edo, beharrezkoa balitz, gure herrietako jai ondarrerik garrantzitsuenaren titulartasun publikoa bermatuko duen lege ekimena sustatzea, Euskadiko tokiko jaiak herritar guztien kultura ondare ukiezin izendatuz, eta horrela gure zuzenbide ordenamenduko funtsezko oinarriari eta funtsezko eskubideen aginpideari lotuko zaizkiela ziurtatuz.

Edonola ere, jaien antolakuntza pribatua ezin da oinarria izan funtsezko eskubideen, eta zehazki berdintasun oinarriaren, aginpidea gizartean eratutako harreman eremu eta esparru guztietan, kultura eta jai eremua barne, babestu eta zaintzeari aurre egitea dagokien erakundeak inhibitzeko. Ez dugu ahaztu behar jai gertakari batzuetan emakumeak berdintasunezko parte hartzetik at utziz gertatzen den berdintasun oinarriaren urraketak, jai-kultura ondarearen eremuan proiektatzen eta askotan esparru publikoetan erakusten denez, herritarren interes orokorraren ardura izateko eta, ondorioz, interes horrekin herri-aginteen ardura ere izateko beste dimentsio publikoa hartzen duela.

Horregatik, Zuzenbidezko Estatuaren funtsezko betebeharreari itzuri egiteko pentsatutako holako bideek dirauten tokietan, zuzenean dagokien herri administrazioek –orokorrean dagokien udalek-, estalkia altxatu eta herritar



guztientzako berdintasunezko jaiak eratzeko dagokien erantzukizuna agerrarazi behar dute.

5. Herri-aginteez jaietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko duten betebeharra

Zein ere den herri administrazioek euskal herrietako jai gertakariak antolatzeke eta eratzeko duten parte hartze maila, zalantzarik gabe, Konstituzioko 9.2 artikulua benetako eta egiazko berdintasuna galarazten duten oztopoak kenarazten dizkie herri-aginte guztiei. Manu horren aginduaren xedea Konstituzioko 14. artikulua formalki aldarrikatutako berdintasun materiala lortzea da, eta horrela gizarte Estatuak egiazko eta benetako berdintasunezko gizarte lortzeko aktiboki engeiatzeko daukan eginkizuna ematen du –horrela Estatu liberalaren eredia gaindituz, hark pertsonen arteko berdintasun formala baino ez baitu aldarrikatzen-.

Bada, azken urteetan konstituzio xedapen horiek legez garatu dira eta garapen horrek zehaztasunez xehatu ditu herri-aginteez benetako eta egiazko berdintasuna lortzeko oztopoak kentzeko dituzten betebeharreke hartu beharreke moduak. Zentzu horretan, azpimarratu nahi dugu betebeharrak horiek oso argitu dituztela Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (aurrerantzean, Berdintasunaren euskal Legea) eta emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak. Lege horiek betebeharrak zehatzak daukate herri administrazioek arlo guztietan –kultura eta jai arloan ere bai- emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko ekintza positiboek hel diezaieten eta, zentzu horretan tresna garrantzitsua dira herri-aginteez benetako eta egiazko berdintasuna galarazten duten oztopoak kentzeko duten betebeharra ezartzeko.

Orain zehaztuko dugunez, lege arau horiek behin betiko bermatzen duten konstituzio betebeharrak juridiko saihestezina dago herri-aginteez jai adierazpen guztietan emakumeen berdintasunezko parte hartzea bermatzen duten jaiak antolatzea susta eta bultza dezaten.

Horrela, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoari dagokionez, Berdintasunaren euskal Legeke xedapenak indartzen ditu, jai eremuari dagokionez betebeharrak zehatzak zehatzen dituelako, estatu lege horrek estatu, autonomia eta tokiko politika publiko orokorren gaineko ondorioak ere hedatzen baititu, Estatuari Konstituzioak konstituzioko eskubideak eta betebeharrak erabiltzeko herritar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritako baldintzak arautzeko ematen dion eskumenean babestuta. Lege horren asmoa –eta horretarako, euskal legeak bezala, zeharkakotasunean eta ekintza positiboan oinarritutako tresna batzuk ezartzen ditu- oraindik dirauten sexuagatiko bazterkeria adierazpen guztiek aurre egitea eta emakumeen eta gizonen arteko benetako





berdintasuna sustatzea da, hura erdiestea galarazten duten gizarte oztopo eta estereotipo guztiak ezabatuz.

Euskal legegileak lehenago ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bitartez, herri administrazio guztiak helburu hori lortzea aktiboki zaindu beharreko modua eta era xehetasunez garatu nahi izan zituen. Lege horretako artikuluetan jai eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko herri-aginteez abiarazi beharko dituzten tresna zehatzak daude². Zehazki, Berdintasunaren euskal Legeko honako xedapenak azpimarratu nahi ditugu, lehenbizi, eremu honetan arauan xedatzen diren **debekuak** aipatuz:

Hasteko, lege horretako 25.1 artikulua aipatu behar dugu. Bertan, beren beregi, honakoa debekatzen da: *“emakumeek gizonetikiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan”*. Klausula horrek gune publikoetan emakumeak baztertzea debekatzeko jardura baimentzeko eskumena duten administrazioei manu horretan oinarrituta debekatzeko betebeharra dakarkie, Konstituzioko 14. artikulua begi bistako garapena izanda. Horrek gune publikoetan gertatzen diren jai jarduerak baimentzeko aukera oro salbuesten du, jardura haiek emakumeen berdintasunezko parte hartzea ahalbidetzen ez badute.

Bigarrenez, legeko 25.2 artikulua herri administrazioen ordezkariari honakoa debekatzen die: *“Kultura-jardueraren batean –hor sartuta jai kutsukoak, (...) sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada (...) administrazioaren ordezkari gisa parte hartu”*. Gure aburuz, klausula horrek aipatu parte hartzeak jardura baztertzailan sartzea ez ezik, pertsona publiko horrek jardura baztertzaila onartzen duela adierazten duen jarduketa oro ere bildu behar du. Alegia, gure aburuz, ez luke gertatu behar, esaterako, alkate edo alkatesa batek edo beste edozein herri ordezkari udal txetik edo beste edozein gune publiko eta jai gertakariako garrantzitsutatik, jaietako une goren eta ikusgarri batean, emakumeak baztertzen dituen jai jardura burutzen ari den pertsona taldeari harrera egiteak, agurtzeak, ongietorria emateak edo edonola zuzentzeak.

Azkenik, legeko 24.2 artikulua azken debeku bat xedatzen du, eta hura jai eremura proiektatzea oso garrantzitsua izan daiteke; zehazki, *“kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei”* inolako laguntzarik ematea debekatzen du. Debeku horri lotuta, lege horretako 3.1 artikulua (hirugarren paragrafoan) jasotzen duena ere azpimarratu behar dugu, sexuagatiko bereizkeria egiten duten jarduerari inolako laguntza publiko edo diru-laguntza ematea galarazten baitu. Klausula biek galarazten diete herri

² Erakunde honek gaiari buruzko txosten xeheagoak eman ditu, Irun eta Hondarribiko alardeetan emakumeek berdintasunez parte hartzearen kaltetara. Gaiaren azterketa sakonagoa egiteko, *“Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azterketa: lege berriren ondorioak emakumeen Irun eta Hondarribiko alardeetako bereizkerian”*, Arartekoaren webgunean: www.ararteko.net.



administrazioei pertsona talde horiekin edozelako elkarlana izatea, eta horrek beste arau sektoreetako lege xedapenak berretsi baino ez du egiten, sustapenean, hura bere dimentsio guztietan zehaztuz, Konstituzioko 14. artikuluan finkatutako berdintasun oinarriaren herri-aginteen aurreko aurkagarritasuna gauzatu.

Bestalde, legeak jai eremuan berdintasuna lortzeko xedatutako **betebehar zehatzei** dagokienez, hasteko, legeko 3.4 artikuluan orokorrean xedatutakoa azpimarratu behar dugu, honela baitio: *“Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten”*. Horrela, politika eta ekintza publiko asko baldintzatzen ditu betebehar horrek, zeinek baitakar sistematikoki hartu behar dela aintzat ea neurri jakin baten bidez edo arlo bakoitzean burutzen ari den politika publiko jakin baten esparruan sexuagatiko berdintasunaren helburua bermatuta dagoen. Horrek, zalantzarik gabe, kultura politika guztiari eta, bereziki, jai politikari eragiten dio. Politika hori batez ere udalei dagokie (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 25.2 m) artikulua haiei berariaz ematen dien eskuduntzaren arabera), baina ez haiei bakarrik.

Horri kultura arloan bereizkeria desagerrarazteko neurriak hartzeko berariazko betebehar publikoa batu behar zaio, Berdintasunaren euskal Legeko 25,1 artikuluko lehenengo paragrafoan dagoen manutik ondorioztatzen denez, zeinek euskal herri administrazioei honakoa xedatzen baitie: *“beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela (...) kultura-jarduera guztietan”*. Lege xedapen horren azken aipuak honakoa dakarkie herri-aginteei: bereizkeria ezaren helburu zorrotza gainditu eta benetako eta egiazko berdintasunaren lorpenean sakondu behar dutela, kultura arloan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua lortuz. Arau horrek dakarren erronka oso garrantzitsua da aztertzen ari garen jaien eremurako, eta emakumeek jai gertakari guztietan presentzia eta partaidetza gero eta handiagoa izatea bultzatzen duten neurri eragileak erabakitasunez sustatzera bultzatzen ditu euskal herri-agintek.

Bestalde, azpimarratu nahi dugu legeko 3.6 eta 3.5 artikulua, hurrenez hurren, euskal herri-agintek sexuaren arabera gizarte eginkizunak eta estereotipoak ezabatzea eta emakumeen benetako eta egiazko berdintasuna lortzeko ekimen positiboak sustatzeko betebeharraren lege oinarria direla. Ekimen positiboak aldi baterako dira eta gizarte errealitateak gehien kaltetzen duen biztanleria sektoreari laguntzea bilatzen dute. Jaiei dagokienez, dagokien herri-aginte guztiek aztertu behar dute holako neurriak sustatzea –orain arte jai eremuan ez baitira ikertu-, esparru horietan emakumeek hasieratik pairatzen duten desberdintasuna zuzentzeko.

Bestalde, Berdintasunaren euskal Legeak, 5, 6 eta 7. artikuluetan, euskal administrazioentzat (autonomia, foru eta tokiko eremuak, hurrenez hurren),



emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko hartu beharko dituzten neurriak zehazten ditu. Azpimarratu nahi dugu aztertzen ari garen gairako 6b) eta 7b) artikuluek daukaten garrantzia, ekimen positiboak hartzeari dagokionez; 5 p), 6 l) eta 7 l) artikulua, bereizkeria egoerei antzeman eta haiek ezabatzeko neurriak hartzeari dagokienez; eta 6 f) eta 7 f) artikulua, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunari buruzko sentsibilizazio jarduerak egiteari dagokionez.

Bukatzeko, esan behar da, administrazioaren jokabideari eta herri-aginteez artikuluetatik ateratako betebeharrak urratzeari dagokienez berariazko hertsapen sistemarik ez dagoenez, jokabide batzuen zigor tipoak kaltetu gabe, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 62. eta hurrengo artikuluetan araututako ekintza administratiboan balio gabetasuneko araubide orokorrera jo behar dugula. Komeni da gogoratzea lantzen ari garen gaian administrazioaren ekimenak daukan garrantzia, Berdintasunaren euskal Legeak herri-aginteei ezartzen dizkien betebeharrak zehatzak urratzeko modu gisa, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren gai gisa haren aurka egitearen bideragarritasuna ere bai, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legeko 25.2 artikuluan berariaz ezartzen denez.

6. Ondorioak

Tokiko herri aginteez, gainontzeko euskal administrazioek bezala, euren eskumenen esparruan, ezin diete bizkarra eman gizartearen ezinbesteko aurrerapenari, aldaketari eta gizarteak bizi duen eta zuzenbideak bultzatu nahi duen aldaketa sakonari. Hori dela-eta, ezin dute lagundu, laguntza esplizitu edo inplizituaren, anbiguotasunaren edo inhibizioaren bidez, herritartasun kontzeptu herrena sendotzen, emakume eta gizonentzako berdintasunezko jairik ez dagoen Euskadiko tokietan, kontzeptu horrek ezin baitu tokirik izan gure sistema demokratikoan eta, tamalez, kontzeptu hori gure gizartearentzat gorrotagarriak diren jokabideak elikatzen duen oinarri ideologikoa baita. Aitzitik, oso garrantzitsua da herri erakundeak, zein bere eskuduntza eremuan, aktiboki eta erabakitaz, itzulgingururik eta zehaztugabetasunik gabe, Euskadi osoan emakume eta gizonentzako berdintasunezko jaiak sustatzen engaiatzea.

* * *

Horregatik guztiagatik, Arartekoak honako gomendio hauek egiten ditu:



GOMENDIOAK

Euskal udalei:

- Euren udaletan ez baimentzea eta ez onartzea emakumeak berdintasunean aritzea baztertzen duen jai jarduerarik ospatzea.
- Zuzenean edo zeharka, ez finantzatzea, laguntzea edo bultzatzea emakume eta gizonentzako berdintasunezko jai ekintzak burutzeko jarduerak dauzkan talde edo elkarterik.
- Jai arloan desberdintasuneko egoeren aurrean inhibitu beharrean, euren jaietan emakumeen eta gizonen berdintasun osoa lortzea bilatzen duten ekintza positiboak sustatzea.
- Batez ere jaietan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde aktiboki lan egiten duten pertsonak, taldeak edo elkarteak bultzatzea eta laguntzea.
- Euren udaletako jaietan bereizkeria, emakume eta gizonen partaidetza desorekatua edo estereotipo sexisten sendotzea jazartzea, holako jarrerai antzeman bezala, emakumeen eta gizonen berdintasuna ziurtatzera berariaz bideratutako jai politikak eratuz.
- Jai jarduera guztien antolamenduaren azpian dagoen erantzukizun publikoaren estalkia altxa dezatela, titulartasun publikoari, oinarritzko eskubideen bermeari dagokionez, haien antolamenduan datxezkion betebeharrak bere eginez, horrela jaiak herritar guztien kultura ondarea direla ere bermatuz.

Eusko Jaurlaritzari:

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko tokiko jairik garrantzitsuenak titulartasun publikoko ondare komun gisa gordetzea eta, horrela, gure sistema demokratikoaren araberakoak ez diren xede partikularrak dauzkaten taldeek haietat jabetzeko aukera saihestea bermatzeko, behar diren zuzenbide tresnak sortzeko aukera azter dezala –herritar guztien kultura ondare ukiezina izendatuz-.

Euskal lurralde historikoetako foru aldundiei:

- Euren eskura dauden tresna guztiak erabiliz, euren lurraldeko udal guztiei erabakitasunez lagun diezaietela, jaietan emakumeen eta gizonen berdintasun osoa lortzera bideratutako jenero ikuspegiko jai politikak susta ditzaten.





Euskal herri administrazio guztiei, euren eskuduntza esparruan:

- Emakumeen historia berreskuratzeko eta tradizioak emakumeek iraganetik euren ekarpena egin dieten gizarte errealitate berriari egokitu dakiokeen ideia bizitik hedatzeko aktiboki lan egin dezaten.
- Jaietan emakumeek pairatzen dituzten bereizkeria egoerei antzemateko bitartekoak jar ditzatela, holako jarrerak publikoki salatuz, baita holako egoerek arduradun publikoen laguntza aktibo edo pasiboagatik jaso dezaketen euskarria ere.
- Gizarte sentibilizazioko kanpainak sustatzea, eta hezkuntza arloan, berdintasunari, tradizioei eta emakumeek jaietan behar duten berdintasunezko partaidetzari buruzkoak ere bai, emakumeak baztertzen dituzten tradizioen edo jaien herri babeseko gizarte egoerak itzularazteko xedez.

